



ERREMONTA

Aurreneko partidua gaur, Binakakoa hasteko

Uterga-Azpiroz eta Juanenea-Endikaren arteko norgehiagokarekin emango zaio hasiera erremonteko Binakako Txapelketaren Ligaxkari gaur. Arratsaldeko 16:00etatik aurrera izango da, Galarretan.

ERREMONTA neguko lehiarik garrantzitsuen aurkeztu zuten herenegun Galarretako frontoian: Binakako Txapelketa. Uterga-Azpiroz eta Juanenea-Endikaren arteko partiduekin hasiko da Ligaxka gaur, eta abenduaren 8ra bitarte luzatuko da.

Aurreneko partidu honetan bertan izango da aurreko urteko irabazleak bat: Uterga. Etxeberria IIIarekin jokatu zuen, iaz.

Gaurko jardunaldiko bigarren partiduan hasiko da Ligaxka; arratsaldeko 16:00etan hasiko da saioa, Galarretan.

Sei bikote, lehia

Sei bikotek hasiko dute lehia, aurreneko Ligaxkan: Ansa II eta Barrenetxea IV hernaniarra; Urriza eta Larrañaga; Matxin III eta Ion; Uterga eta Azpiroz; Ezkurra II eta Etxeberria III eta Juanenea eta Endika.

Gaurtik hasi eta hilabetez, Ligaxka jokatu dute, denak denen aurka.

Ostegunetan eta larunbatetan jokatu dira norgehiagokak, eta aurkezpenaz alduz zuten, aurreko urteetako puntuazio-sistema bera erabiliko dute aurten ere: irabazlearentzat (40 puntu), 4 puntu; 36-39 tanto bitartean egiten dituenarentzat, 2 puntu; 32-35 tanto bitartean, puntu bat; eta 32 tanto azpitik eginez gero, ez dute punturik gehituko.

Horren arabera puntuazio altuena lortzen duten lau bikoteak pasako dira finalerdietara.

Abenduaren 29an, finala

Abenduaren 15ean eta 2an jo-



Sei bikote ariko dira lehia, Binakako Txapelketan.

Abenduaren 15ean eta 22an izango dira finalerdiko bi partiduak; ondoren, abenduaren 29an jokatu dute finala, bi bikote onenek.

katuko dituzte finalerdietako bi partiduak. Aurreneko zitan, Ligaxka aurreneko postuan bukatzen duen bikoteak laugarrenaren aurka lehiatuko da; bigarrenak, aldiz, hirugarrena izango du aurrez aurre, bigarren finalerdian. Bi partiduak irabazten dituen bikoteak pasako dira finalera, baikoitzak partidu bana irabazten badu, tanto gehien egiten

duena pasako da eta berdinetak jarraituz gero, bigarren finalerdian irabazlea izango da finalera pasako dena.

Horren ondoren, finalean izango dira bi bikote onenak, abenduaren 29an, larunbatez, beren indarrak neurtzeko. Orduan erabakiko da, hain zuzen, bietako nork jantziko duen Binakako Txapelketaren 48garren edizioako txapela.

Bakarkako sariak, ere bai

Urtero bezala, bakarkako sariak ere izango dira aurten. Bi sari banatuko dituzte, bukaran, txapelketako aurrelari eta atzelari onenei. Horrez gain, finaleko pelotari onenari ere saria emango zaio, beste behin ere. ||

48. ERREMONTA BINAKAKO TXAPELKETA

• Sei bikote: Ansa II eta Barrenetxea IV hernaniarra; Urriza eta Larrañaga; Matxin III eta Ion; Uterga eta Azpiroz; Ezkurra II eta Etxeberria III eta Juanenea eta Endika.

Egutegia:

- Ligaxka: gaurtik, azaroaren 8tik, abenduaren 8ra bitarte. Partiduak ostegun eta larunbatetan izango dira.
- Finalerdia: abenduaren 15 eta 22an. Ligaxkako 1.a Vs. 4.a eta 2.a Vs. 3.a.
- Finala: abenduaren 29an, partiduen irabazleen artean.

Sariak:

- Bikote irabazleari.
- Bakarkako sariak: aurrelari onena, atzelari onena eta finaleko jokalaririk onena.

AZOKA

Makina bat postu, larunbatean

Bigarren Eskuko Azoka egingo da larunbat goizean, eta postua jarri nahi duenak izena eman dezake: 682 741 366. ||

MENDIZALE ASTEA

Patagonia gertu, Rodriguezekin

Mendiriz Mendik antolatutako Mendizale Astearen barruan, Patagonian barrena, Fitz Roy eta Cerro Torre inguruak trekking eta alpinismo aukerak ezagutu ahal izango dira gaur, 19:00etan Biterin, Sonia Rodriguezekin. ||

Murumendira irteera, igandean

Gaztetxoekin Murumendi (868m) igotzeko proposamena egin du Mendiriz Mendik iganderako. Biterin 08:30etan elkartuta abiatuko dira Ordizia eta Beasain artean dagoen mendi gailur honetara. San Marinatik igo eta Mandubira jaitsiko dira. Gaztetxoentzat 2 euroko prezioa du, eta helduentzat, 6. ||

KALEZ KALE KANTARI

Kantua kalera, etzi

Hilero bezala, larunbatean zita jarri du Kalez Kale Kantarik, 12:00etan Plaza Berrin, kaxkolan barrena buelta egiteko. ||

DOINU ZALE

Larunbatean Laudion, kantari

Doinu Zale musika eskolako Ozenki abesbatza eta akordeoi orkestra Laudion izango dira larunbatean. Bertako Santa Lucia abesbatzak gonbidatuta, kontzertua emango dute denek elkarrekin, 20:00etan San Pedro de Lemuza elizan. ||

ERROMERIA

Dantzarako aukera, etzi

Hileko bigarren larunbata izanik, erromeria antolatu du San Joan Konpartsak larunbat arratsaldeko. 18:30etatik aurrera izango da dantzarako aukera, Atsegindegin edo Plaza Berrin. ||

taegi edarietxea
DEGUSTAZIO DENDA
Asteartetik igandera
MOKADUTXOA KOPAREKIN BATERA
Ostegunetan eta ostiraletan berezia
11:30 - 13:30 / 19:00 - 21:00
Zatoz, sulfitorik gabeko ardo naturala dastatzera!
Gipuzkoa osoan ez dago horrelakorik!
Andre kalea 33, Hernani
943 12 84 03 / 681 394 063

Tripontzi jatetxea
PINTXOAK
RAZIOAK
ENTSALADAK
PLATER KOMBINATUAK
ARRAI FRESKOAK
ANDRE KALEA, 11 - HERNANI
943 555 724

Amaita arrandegia
Arrainak
Itsaskiak
Fresko eta izoztuak
943 55 07 52 / 650 53 87 72
Andre Kalea 34. 20120 HERNANI

Hernaniko Udala
Udalbatzarrek 2018ko urriaren 30ean egindako bilkuran hasierako onespina eman zion Zergak, Tasak eta Prezio Publikoaren Ordenantza Fiskalen Aldaketari, Uztailaren 5eko 11/89 Foru Arauak ezartzen duen moduan. Aldaketa hori 2019 urteko urtarrilaren 1etik aurrera sartuko da indarrean.
Akordio horiek eta espedienteak Udala honetako Errenta Zerbitzuan egongo dira ikusgai 30 egun, nahi duenak bidezko jotzen dituen erreklamazioak aurkezteko. Epe hau kontatzen hasiko da iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (212 zk. 2018ko azaroaren 5a) argitaratu eta hurrengo egunetik. Informazioa ere badago Internetean www.hernani.eus/eu/arauak-eta-erabakiak-jendaurrean-jartzea.
Hala jakitera ematen da da 11/89 Foru Arauaren 16.2 artikulua ezartzen duena betetze aldera.
Hernani, 2018ko azaroaren 6a
ALKATEA Luis Intxauspe Arozamena

☎ **TAXIAK:** 943 550093 | **UDALTAINGOA:** 943 248900 | **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 | **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 | **IJOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103
✚ / **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** / **Gauetz:** **Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941**

EGURALDIA **GAUR** Lainoak agertuko dira zeruan, batez ere, goizean eta egunaren bukaeran. Dena den, ez du euririk egingo. Hego-haizea indartsu ibiliko da berriro, eta giroa epela izango da. **Min.8° / Max.17°**
BIHAR Egunaren hasieran baliteke euria egingo, baina hobetzeraz egingo du. Arratsalde-gau partean berriro euri bikia egingo du. Haizea zakar ibiliko da berriro. **Min.9° / Max.16°** (euskaime)

HEZKUNTZA ESKOLA

Sexu identitatearen inguruan gaur, Nerea Sanchoekin batera

Arratsaldeko 17:30etan hasita egingo dute ikasturteko bigarren Eskola udaletxeko areto nagusian. Zaintza zerbitzua izango da.

HILERO egin ohi du Hezkuntza Plataformak Hezkuntza Eskolarako deia; aurreko hilean hasi zuten ikasturtea, eta gaurko antolatu dute bigarren saioa. *Sexu identitatea haurtzaroan: transexualitatea.* Arratsaldeko 17:30etan hasita izango da, udaletxean. Zaintza zerbitzua izango da, baita ere.

Transexualitatea, bereziki

Orokorrean, sexu-identitatearen gaiari eutsiko diote, eta bereziki transexualitateaz ari-tuko dira. Helburua da, behintzat, ondorengo galderak jorratzea: «Haurrek, neska edo mutil bezala errekonozituak izatea behar dute? Nola dakigu transexualitate egoera baten aurrean gaudela? Zein paper betetzen dute generorolek honetan guztian?».

Eta horrekin jarraituz, gurasoek edota haurren arduerdunek izan ditzazketen beste hainbat kezka ere jarri-



Aitarek aztertu zuten aurreko Hezkuntza Eskolan.

ko dituzte mahai gainean: «haur batek beste sexukoengan ohikoagoak diren jarre-rak, jolasak edo apaindurak gustuko dituenen, hainbat kezka eta zalatza sor dakizkiguke». Baita horiei aurre egiteko irizpide zehatzak eta baliabideak eskaini ere.

Sanchoen laguntza

Lan horretan laguntzeko, hain zuzen, bertan izango da Nerea Sancho sexologa eta Arremanitz Kooperatibako kidea. Hain zuzen bera da Plax! sexu eta bikote aholkularitzan arreta eskaintzen duen profesionala. ||

ELKARBIZI

Oroimenaren Eguna etzi, azaroko hitzorduaren aurretik

Andoingo 'Askatasunari' eskulturari jarri dute zita larunbatean, 12:30etan; bertan izango da azaroko ikastaroa ere, Langraiz Bideri buruz.

URTERO antolatu ohi du Oroimenaren Eguneko ekitaldia Buruntzaldeako Elkarbizi taldeak, eta aurten ere, ez du hutsik egingo. Larunbatean izango da, hilaren 10ean, indarkeriaren biktimak gogoratzeko izendatuta dagoen egunean; Andoingo Lopez de la Calle parkean dagoen Askatasunari eskulturari egingo dute bat, eguerdiko 12:30etan.

Joan nahi duenak izena eman beharko du hilaren 15a baino lehen: ganboiturri@gmail.com.

Ikastaroa, hilaren 17an

Hilaren 17an bueltatuko dira Elkarbiziko kideak andoainera. Hernanin eta Astigarragan

Hilaren 17an egingo dute hurrengo ikastaroa, Andoainean.

izan ondoren, bertan egingo baitute ikasturte honetako hurrengo ikastaroa: *Langraizeko bidea, bergizarteratsetik berradiskideatzearen bila.* Goizeko 11:00etan hasita izango da, Urigain etxearen areto nagusian.

Unzueta eta Urrusolo, hizlari Gaiaren inguruko azalpenak emateko, bi gonbidatu izango dituzte: Humberto Unzueta kazetaria, *Langraiz bisean bis* liburuaren egilea; eta Joseba

Urrusolo, ETako kide izan zena eta Langraizeko kartzelan preso egondakoa.

Zein izan daiteke preso hauek etorkizunari begirako elkarbizitza normalizatu bat lortzeari egin liezaiokeeten ekarpena? galderaren inguruan hausnartuko dute Unzueta eta Urrusolok.

Helburu bikoitza

Elkarbizik azaldu duenez, helburu bikoitza dauka ikastaroak: «Alde batetik, indarkeriaren estrategiarekin hautsi egin duten presoen gogoeta prozesua ezagutzea. Eta, bestetik, bergizarteratze prozesuek berradiskidetze sozialari ekar diezaiokeeteena balioztatzea». ||

HERNANIKO SORTU

Euskal Errepublikaz, Sorturen eskutik

Gaur eskainiko dute hitzaldia Rufi Etxeberriak eta Jone Etxeberriak, Biteri kultur etxean.

HERNANIKO Sortu alderdiak gonbidatuta, hitzaldia eskainiko dute gaur Rufi Etxeberria eta Jone Etxeberria Sortuko kideek. Arratsaldeko 19:30etan hasita izango da, Biteri kultur etxean.

Nola lortuko dugu Euskal Errepublika? izenburupean, Euskal Herriaren egungo ego-

'Nola lortuko dugu Euskal Errepublika?' galderari erantzungo diote Sortuko kideek.

era aztertu eta etorkizuneko erronkez arituko dira. ||

KONTRAKANTXA GAZTETXEA

Mendi irteera Axketara, larunbatean

Axketa mendira egingo du irteera larunbatean Kontrakantxa. Atsegindegiko G1aren geltokitik 08:30etan abiatuko dira, kotxeetan antolatu ondoren. Gero, bazkaria ere egingo dute, aukera beganoarekin. Gaur arte izango da aukera, apuntatzeko, baita bazkaritara joan nahi dutenek ere: kontrakantxagazte@gmail.com. ||

HERNANI AHAL DUGU

Bilera gaur, hauteskundeei begira

Biterin jarri du hitzordua Hernani Ahal Duguk gaur, 19:00etan. Besteak beste, udal hauteskundeetarako lan-taldeak eta antolaketa izango dituzte hipside, eta Renfe-Adifen inguruan egin daitezkeen ekintzak. Herritar guztiei irekitako bilera dela gogorarazi dute. ||

LANGILEEN BABESA SAREA

Batzarra, autobus zerbitzuari buruz

Batzar irekia deitu du biharko Hernani Langileen Babes Sareak, 17:30etan Biterin. Gai bakarra landuko da: autobus zerbitzuetan egingo diren murrizketak. «Murrizketa horien aurka antolatu eta borrokatu nahi duen orori egiten diogu deia», adierazi dute. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskala jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

JOXE MARI URRETABIZKAIA LIZARRIBAR


(Carmen Arregiren alarguna)
Atzo hil zen, 81 urte zituela
- Goian Bego -

Seme-alabak: Alazne eta Pili, Aitor eta Yoli, Agustín eta Mary, Gregor, Karmele eta Félix, Jon eta Asier; bilobak: Aitor, Beñat, Nahia eta Zigor; ezkon anai-arrebak; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte **BIHAR, OSTIRALA**, arratsaldeko **SEIETAN, Astigarragako ANDRA MARI** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Astigarragan, 2018ko azaroaren 8an

OHARRAK: Gorputza Errekaldeko VASCONGADA EHORZKETA TANATORIOAN egongo da bihar eguerdiko 12:45ak arte.



IRAGARKI MERKEAK

Txema Tabernan aste multikulturala azaroaren 12tik 19ra. Eguneroko herrialde desberdin bateko plater bat dastatzeko aukera. **Erreserbak: 688 630 241**

HERNANIKO GAZTELEKURAKO hezitzaile bila asteburuetan lan egiteko. Erdi edo goi mailako unibertsitate ikasketak. Euskara: E.G.A.-baliokidea. Kurrikulumak: hgazteleku@gmail.com.

Emakumea lan bila, garbiketari, helduak zaintzen... **Deitu: 609 209 161**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura, ... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**